



Xake
Makala Jazz Funk Band
Orrua, 2015

Dantza egin Makalarekin

MAKALA JAZZ FUNK BAND taldea da Makalaren egitasmo berria. Zarauzko musikari eta disko jartzaile ezagunaren banda musikari hauek osatzen dute: Antxon Sarasua (teklatuak), Ander Zulaika (bateria), Oihan Lopetegui (ahotsa), Martin Asarian (gitarra) eta Makala bera (baxua). Eskarmentu handiko musikariak dira denak, musikari handiak.

Xake diskoaren aurretik *Passion Fruit* (Orrua Diskak, 2014) eta *Orrua* (Orrua Diskak, 2013) EPak edo disko laburrak kaleratu zituen. *Orrua* EPko bi kantu *Xaken* ere entzun daitezke: *Orrua* eta *Wack Wack*.

Taldeak denbora gutxian hamaika emanaldi egin ditu Euskal Herriko, Kataluniako, Andaluziako eta Madrildo hainbat jaialdi, areto, klub eta tabernetan; eta ez da harritzekoa, oso talde ona baita, eta haiekin erraza da dantza egitea edo gorputza mugitzea.

Musika afroamerikarra egiten dute. 50, 60 eta 70eko hamarkadetako doinu beltzak jotzen dituzte: jazz, rhythm'n'blues, groove funk eta disco soul. Doinu beroak eta gozoak. Kantu politikak eta oso landuak, mimo handiz eginak.

Xake diskoa oso ongi grabatua eta ekoitzia dago. Makala eta Antxon Sarasua aritu dira ekoizle lanetan, eta lan aparta egin dute. Moldaketak arretaz zaindu dituzte, gehiegizko apaindurarik egin behar izan gabe. Musikariak trebeak dira, eta beren tresnak oso ongi erabiltzen dituzte. Oihan Lopetegik oso ongi kantatzen du, eta bere ahotsa leuna eta oso polita da.

Mikel Unzurrunzaga Schmitz *Makala* musikaren munduan murgildu zela hogeitau urte baino gehiago dira. Urteotan, areto ugaritan eta hainbat grabazio estudioetan eta irratsaiotan aritu da disko jartzaile, musikari eta ekoizle lanetan eta beste artista batzuentzako nahasketak egiten, baita ekitaldiak eta musika emanaldiak programatzen eta antolatzen ere.

Xake diskoaren aurretik lan hauek argitaratu ditu: *Global Funk Remixes 2004-2014* (Orrua Diskak, 2015), *Unexpected Tapas* (Lovemonk, 2011), *Selects Boom Shaka Laka* (Malandros-EITB, 2006), *Hondartzan* (Metak-Orrua Diskak, 2005) eta *Makala Plays*

Novophonic (Novophonic-So Dens, 2002). EP batzuk ere bai, eta abesti eta remix ugari kaleratu ditu UrbanWorld (Danimarka), Movimientos (Erresuma Batua), Agogo (Alemania), Freshly Squeezed (Erresuma Batua), Rip Curl (Japonia), High Note (Taiwan), Lola's World (Alemania), Wagram (Frantzia), Elkar (Euskal Herria) eta beste hainbat diskoetxerekin.

Zenbait talderekin eta artistarekin aritu izan da, eta disko jartzaile lanak egiten, besteak beste, Portugalen, Italian, Katalunian, Espainian, Frantzian, Belgikan, Holandan, Erresuma Batuan, AEBetan, Suitzan, Austrian, Alemanian, Eslovakian, Txekiar Errepublikan, Polonian eta Danimarkan, eta nazioarteko jaialdi ezagunenetan ere parte hartu du: Glastonbury, Sonar, Popkomm, Paulusfeesten, Womex, Jazzaldia...

2008. urtetik, hilero Global Funkers festak antolatzen ditu Euskal Herriko hiri nagusietan, Alice Russell & TM Juke, Nickodemus, Daniel Haaksman, Captain Planet, Sweet Vandals, Pete Isaac *Jelly Jazz*, *Dusty Jazz & Milk*, DJ Farrapo, DJ Click, Jim Avignon, JADD, Miqui Puig, Txarly Brown eta beste hainbat DJ eta artista ezagunekin... Gainera, Gaztean, Euskadi Irratian eta Groovalizacion Interneteko irratian ere aritzen da.

Musikazale amorratua eta langile nekazina da Makala. Lantzen duen musika oso eklektikoa da. Doinu bero eta tropikalak jorratzen ditu, jazz, swing, soul, funk, reggae, ska, disko, cumbia, boogaloo, gipsy rhumba, Afrikako eta Brasilgo doinuak, latinoak... eta horiek guztiak erritmo berritzaileekin eta elektronikoekin nahasten ditu.

Musika bihotzetik ateratzen zaio, dantza egiteko musika beroa, eta musikak bizipoza ematen diola nabarmena da. Makala Jazz Funk Bandekin ere dantza egiteko eta ondo pasatzeko musika egiten du, alaitasuna eta bizipoza transmititzen dute. Bizimodu kaka bat izanda ere, aurrera begiratu behar baita, alaitasunez eta umore pixka batekin. ■

Joxi Ubeda